

LAN BATZORDE IREKIAK

TALDEA

EUSKARA ETA KULTURA

IRAUPENA

Ordu eta erdi

EGUNA

2016/11/16

GAIA

**Makilari eta udazken /
neguko programa**

DEIALDIA

1. Makilari
2. Batzarra

PARTE HARTZAILEAK

Leire Murua	Ane Miren Aizpuru	Aratz Igartzabal	Ezin etorria adierazi dute:
Xabat Goikoetxea	Iñigo Igartzabal		Iban Maiz
Arantzazu Baztarrika	Eresti Oiarbide		
Ander Yurrita	Jokin Murua		

ERABAKIAK

GAIA

EKINTZAK

MAKILARI

aurten 28.alea

KONFIRMATUTAKOAK

- *DI-DA eta Gabiriar berriak* -Aratz Igartzabal-
(Jon Redondo/Miren Herguedas, Mikel Lizardikoa, Paredes, Orbegozo, Fabiola...)
- *Umorez lehengo kontuak eta Galdu diren lanak eta izenak* -Eusebio Igartzabal-
- Hemendik hara -Jokin Murua-
- *Sukalde txokoa* -Leire Murua-
(Gizonezkoren bati egingo dio)
- *Profesio txokoa eta elkarrizketa* -Xabat Goikoetxea eta Iñigo Igartzabal-
(Itzain, zorroztaile, relojero...)
- *Gabiriako baserriak eta Argazki zaharra* -Ander Yurrita-
(Etxeberri Bizkai, Izar Haundi eta Izar Txiki)
- *Eskola* -Ane Miren-
- *Aho osasuna* – Maialen Igartzabal-

KONFIRMATU GABEKOAK / IDEIAK

- *Berriak labor* eta *Makilakixki* –Aimar Maiz-
- *Argazkien Jolasa* –Naiara Peñagarikano- Epea motzago jartze komeni da; emailaz aparte, Ostatur parte hartzeko ontzia jarri behar da

	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Iban Maiz???????</i> • <i>Leharrei –Eresti Oiarbide-</i> • <i>Gabiriako webgunea –Alex Areizaga-</i> • <i>Perretxikoak (mikologia) –Jon Ander Jaka eta Iñaki Oiarbide-</i> • <i>Mendia –Joseba Iztueta-</i> • <i>Sokatira taldea???????</i> <p>URTARRILAREN 25erako lan guztiak entregatu behar dira udal.batzordeak@gmail.com</p>
HARTU EMAN IKASTAROAK	<p>Bi ikastaro egin berri dira (<i>Errezeta begatarianoak</i> eta <i>Perretxikoak</i>) eta oso balorazio ona egin dugu; arrakastatsuak izan dira. Jende askok parte hartu du eta aurrerago ere gehiago egin behar ditugula argi dugu.</p> <p>Hurrengo <i>Lehen sorospenak</i> izango da, abenduaren 17an (Pake Galdos eta Andrea Aldazabal); ordua zehaztu gabe dago, baina goizean egingo da ziurrenik</p> <p>Aurrerago egiteko ere badaude ideia batzuk: <i>Garagardoa egitea</i> (Iban Maiz eta iker Etxezarreta), Elizako erlojuaren erabilera (Eusebio Igartzabal), Organoa barrutik (Ane Miren)...</p> <p>Horrelako ikastaroak egiten jarraitzeko asmoa daukagu</p>
GOAZEN	Jendetza bildu zen, kanpotik jende asko etorri baitzen; dokumentala ikusten 140 bat lagun, eta harreran gehiago izango ziren
ORGANO KONTZERTUA	Ezberdina izan zen. Jendea gustura gelditu zen; ordu aldaketa egin zuten jende dezente bertaratu zen (40-50 bat lagun)
HIP HIP URRI!	Hemen ere balorazio oso ona egin dugu; primeran atera zen. Gainera, antolatzaileek eurek esan dute Gabiria izan dela auzolanean zerbait antolatu duen herri bakarra
FILMAK	<p>Gabonetako oporretan umeentzako filmak jartzea erabaki dugu; ze film jarriko diren zehaztu gabe badago ere, egunak eta ordua zehaztu ditugu: abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an (17:00etan)</p> <p>Helduen filmetara jende oso gutxi etortzen da; beraz, zerbait ezberdina jar dezakegu. Amets Arzallusek eta dokumental bat egin dute eta horri buruz informatzekotan gelditu gara (Leire)</p>
ESKOLAKOEN EMANALDIA	Abenduaren 3an, 17:00etan
TXINDATA MUSIKA ESKOLAKOEN EMANALDIA	Abenduaren 18an, meza garaian eta ondoren
ANTZERKIA	Urtea amaitzerako edo urte hasieran antzerkia jartzea erabaki da; <i>Erdibana antzeztanaz</i> galdetu dugu (1.900 € + BEZa). Aktoreak <i>Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza</i> dira. Oraindik ez dago lotuta, horretan gabiltza. Sarrera 5 € kobratuko genuke. Proposatuko dizkiegun egunak honakoak izango dira: abenduaren 30ean, 18:00etan edota urtarrilaren 1ean, 18:30ean
AURRERAGO EGIN DAITEZKEENAK	- Imanol Ituiño bakarriketalarri/magoarekin hitz egitekotan gelditu gara (Xabat); ostiraletako pintxo-pote garairako egokia litzateke, urtarril edo otsailerako

	<p>- <i>Azken eguzkiloa antzezlana</i> (750 € +BEZa); umeentzako antzerkia eta <i>Bertsolaritzaren historia</i> (Gurru eta Aritz) udaberri kulturalerako egingarriak izan daitezke</p>
--	--

HURRENGO BATZARRA,

URTARRILAREN 18an, asteazkena,

19:00etan, MAKILARI

Ondoren, EUSKARA eta KULTURA batzarra